

Angel Amigo



Errenteria, 1952. Hamabi urterekin aldatu zen Donostiara. Iruñea –kazetari izatea xede–, Belgika –erbestea–, El Puerto de Santa María eta Segovia... –Euskadi eta askatasuna xede– ezagutu zituen ondoren. *La fuga de Segovia* filmak zinemaren mundura eta –abenturara– bideratu zuen. Zinema ekoizle da. *Veinte años y un día* liburuan zinemagintzako bizipenak kontatu ditu modu bitxian. *El año de todos los demonios* da bere azken lana. 1976an desagertutako Eduardo Moreno Bergaretxeren –*Pertur*; ETako kidea– kasua ikuspegi berri batetik aztertu du dokumentalean.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

«Dokumentalak ez du inoren irudia garbituko»

ETako buruzagi Eduardo Moreno Bergaretxeren, *Pertur*ren, desagertzea gaizki “barneratutako” kasua izan liteke. Halaxe begitandu zaigu *Pertur ETA 71-76* liburuaren eta *El año de todos los demonios* dokumental berriaren egile Angel Amigorekin solastatu ondoren. Bere hitzetan, liburu garai hartan hainbat jenderengan *interiorizatu* zen egoeraren emaitza izan zen. ETako kideek desagerrarazi zuten ustea, alegia. Iaz, ordea, *Pertur*ren 30. urteurrenaren karietara *Pertur* kasuak norabide berria hartu zuen: “*Pertur* italiar neofaxistek desagerrarazi zuten

tesia indartu du dokumentalak”, adierazi digu Angel Amigok.

Beraz, *Pertur ETA 71-76* liburuaren tesia aldatu dela esan daiteke.

Tesia ez da aldatu, gertakirira hurbiltzeko modua baizik. Liburuan orduko ingurua jaso nuen eta barne klabeak idatzi. Gure mundua geure inguru hurbilean bukatzen zen, hurbileko “etsaien” edo “aliatuen” ingurura iristen zen nolabait. Nire kasuan, *Pertur*rekin gertatu zena aztertzean, inguruaren ondorioak eragin zuen. Bizi genuen egoeraren barneratze edo *interiorizatzeko* berezia izan zen.

Noiz hasi zen sortzen hipotesi berria?

Aldaketa edo jauzia iaz hasi zen. *Pertur* desagertu zeneko 30. urtearen zioz, ETako 500 *polimili* ohik egin genion omenaldian. Mota, jite eta joera guztietako *polimili* ohiak bildu ginen. “*Pertur ETA 71-76* liburu berrirakurri dut, ez dago gaizki” esan zidan batek. Biharamuncan liburu berrirakurri nuen. *La Gaceta del Norte*ko fotokopia bat irakurtzean aldardea aldatu zitzaidan. Orrian Angel Berazadiren hilketa zetorren. “*Si los terroristas quieren guerra la tendrán*” zioen Fragak. “*16 deportados en la isla de Yeu*”. “*Huidos de la cárcel de Segovia*”.

via son detenidos”. “Sin noticias de los policías desaparecidos en Hendaya” zioten beste titularrek.

“Arraioa, polizia buru bazara, nola heldu honi?” esan nuen nirekiko. Guk Pertur nola ikusten genuen gogoratu nuen une batez: Pertur –ñabardurarik gabe esanda– ETAko ona zen, borroka armatua uztea proposatzen zuena. Besteak gaiztoak ziren. ETAn (pm) zeuden joerak oso desberdinak ziren, bi ildo zeuden. Horiek horrela: “Nork egin ziezaiokeen mina?” pentsatu genuen. Poliziak aldiz nola ikusten zuen? *La Gaceta* irakurri berri dudana gogoetatu ondoren, talde parapolizialek egin zezaketena barneratu dut nolabait.

Beste ondorioren batera iritsi zinen...

Bai. Garai hartan kasuari buruzko pertzepzio ugari eta desberdinak zirela, eta dokumentalean agertu dudanez, ni neu pertzepzio joko perbertso baten biktima izan nintzen. Egoera horretan gauzak ez dira “diren bezala” “ematen duten bezala” baizik.

Pertur erakundeko kideek desagerrarazi zutela barneratu zenuen beraz.

Bai. Baina ez modu logikoaren ondorioz. Bere tesien aurka zeuden *Bereziek* desagertzea poztasun izugarriarekin jaso zuten, baita ospatu ere. Tabernetan beraiekin topo egitean “eta zu hurrengo” zioten. Guk “beraiek izan direla esaten dute...” pentsatu genuen, baita Perturren desagertzea hurbileko arerio politikoengan horrela barneratu zela ere.

(...)

Areago, orduko ETA militarreko buruzagien jarrera oso garrantzizkoa izan zen hura horrela ulertzeko. ETAko (pm) VII. Biltzarreko kideei ere esan zieten, esplizituki. Dokumentalean Lourdes Auzmendiren lekukotasunean jaso da parte hori. Argala eta Txomin VII. Biltzarrean zeuden, Lourdesi elkartasuna adierazi zioten, gertatua gaitzetsiz. Perturren desagertpenaren atzean *Bereziek* zeuden uste osoa aditzera eman zioten.

Zer irudi zuen Perturrek erakundean?

Batzuentzat traidorea zen eta besteentzat borroka armatua utzi behar zela planteatzen zuen kide ausarta. Estatuaren esferatik ez zen horrela

El año de todos los demonios Donostiako Zinemaldian

Jende anitza eta ezohikoa elkarrekin

El año de todos los demonios dokumentala Donostiako Zinemaldian (Zabaltegin) estreinatuko da. Egileak utarrilean sartu ziren buru-belarri lanean. Kazetariak, epaileak eta ETAko buruzagi ohiak elkarriketatuak izan dira, besteak beste: Ander Landaburu (*El País*). Pertur desagertu baino hiru egun lehenago elkarriketa zuena; *Cambio16* aldizkariak orduan. Javier García (*Sogecable*), Perturren kasua ikertu zuena *El País*en 1984an. Giovanni Salvi epaile italiarra. Angel Ugarte, 1976ko Inteligentzia Zerbitzuetako (SECED) jeneral erretiratu; ETaren aurkako operazioetan buru eta *El Lobore*n nagusia. Alain Etcheto frantses komisarioa, Baionakoa. ETAko (pm) zuzendaritzako hiru kide: Joseba Ereño (Mugalde liburutundako gerentea). Sabin Atxalandabaso, ETAko nazioarteko arduraduna eta Mark Etxegarai, 1975eko erorketetan –Perturrekin batera– poliziari ihes egin ziona. Dokumentalak Perturren bikotekide Lourdes Auzmendiren lekukotasunak eskaini ditu, halaber, Eugenio Etxebestek *Antxon* ETA politiko-militarrean zeuden joerak agertu ditu. Angel Amigoren hitzetan, jende anitza eta ezohikoa elkartu dituzte. Ideologiaren gainetik eta azpitik, publikoa entretenitzea eta orobat ikusleak dokumentala ulertzea nahi du.

ikusia, ordea. Dokumentalean orduko ETA politiko-militarraren egoera berreraiki dugu eta alde hori agertu. Urte hartako gertakarien zentzua modu askotara ulertu zitekeen orduan eta ulertu daiteke gaur egun.

Orain atera duzuen hipotesia ez dela berez atera diote hedabide batzuek. Italiar neofaxistek bahitu zutela orain agertzeak haridura sorrarazi du.

Noski. Normala da. Baliteke. Baina, esaterako, *Pertur* desagertu baino lehen “arrestatua” izan zen. *Bereziek* arrestatua. ETaren historian holakorik ez zen sekula izan. Arresto bat? Hori datu objektiboa zen eta da. Gogoratu behar dugu Pertur familiarekin kontaktuan zegoela eta bere “barne ezinegona eta kezka” helarazi

“Oraingo tesia sendoa da, ordukoa baino sendoagoa behintzat. Noski, hilotza agertzen ez den bitartean ez dago ezer frogatzerik”

zizkiola etengabe. Familiak hondoratua hauteman zuen bere eskutitzetan, Perturrek ez zuen poliziaren beldurra adierazi, *Bereziekiko* beldurra baizik: “*Estos bestias han creado un estado policial*” idatzi zuen. Ni ez naiz harritzen orduan pentsatu eta idatzi nuenaz, ez nire ingurukoak ez familia ere. Eta gaur egun, haietako bat baino gehiago harritu(ko) da, orain dokumentala

ikusita batek baino gehiagok pentsatuko du: “Hara, ez ginen gu izan!”. Ez ahanzi edonola ere, ETAk (pm) polizia akusatu zuela desagertpenaz, erakundeko sektore batzuek ez zutela *Bereziek* desagerrarazi zioten. Familiak egin zuen akusazioa formalki.

Familiarekin egon al zara?

Gurasoekin izan naiz. Egoera berbizitza oso gogorra da familiarentzat. Amak adore eman dit hala ere, politikoki gauzak argitzeko batez ere.

Dokumentalean poliziak edo eskuin muturrak desagerrarazi zuela irmo mantentzen duzu, beraz.

Bai. Oraingo tesia sendoa da, ordukoa baino sendoagoa behintzat. Noski, hilotza agertzen ez den bitartean ez dago ezer frogatzerik. Baina, ikerketaren ondorioz testuinguru honetan bildu ditugun datuak eta Italiako zantzuak sendoak dira. Zoritxarrez Italian ez dago ezer amaituta, kasua ez dago itxita. Azken frogak ez egoteak ez du kentzen hala ere, bertsio hau sinesgarria ez denik. Dokumentalak oraingo ikuspegiaren lekukotasun funtsatua kontatzen du.

Ikuspegia funtsatzen duen zantzuren bat aurreratu dezakezu?

Italiar poliziek Pier Luigi Concutelli neofaxista Ingram metraileta –Marieta bezala ezagutua– batekin harrapatu zuten, epaile italiar bat akabatzeke erabili zutena. Sumarioan ageri denez arma fabrikatua den lantegira (AEBetara) joan ziren eta metraileta hura eta

beste bi Madrilgo Informazio Brigada Zentralak erosiak ziren, Conesa komisarioak sinatuta dago. Neofaxista horiek garai hartan Ipar Euskal Herrian egin ziren hainbat atentatuen egiletasuna onartu zuten 1984an. 1976an izan zen ETako kide baten bahiketa bere gain hartu zuten. Sumarioa aztertuta, zaila dirudi hamar urte ondoren hori guztia asmatzea.

Sumarioan “solte zeuden datu batzuk azaleratu dira, baina ez dugu gauza handirik espero justiziarengandik” esan duzu.

Bai. Kasuaz galdetuta “guk ez dakigu ezer, paperak galdu dira” erantzun digute. Ikerketa posiblearen aurrean eszeptizismoa erabatekoa da. Badago ikertzeko bide bat baina abokatuek zaila ikusten dute. Espainiako poliziak ez du inoiz kasua ikertu. Italiako justiziak kasua ikertzea eskatu diotenean, poliziak ez du aintzat hartu. Kasua blokeatuta dago, gu kasura hurbildu besterik ez gara egin.

Dokumentalean parte hartu duzuenok nola eraman duzue lana?

Lana emozio-egoeran egina da. Dokumentalean alde politikoa eta emoziozkoa jasotzen dira. Alde emozionalak hurbileko pertsonak gainditu ditu: heriotza edota tortura imajinatzeak pertsonengan eragin du. Lan zaila da, zirraragarria, gogorra... Batzuek ez zuten garai hura berbizi nahi, jendeak ahaztu nahi du. Gainera uste bat hausten baduzu... Nik ere izugarri sentitu dut egoera berbizi-tzea, baina nire lana da.

Eugenio Etxebeste Antxonon lekukotasuna jaso duzu. Nola izan da harremana?

Hitzordu bat eskatu nion, bi hilabete-ra erantzun zidan. Kasuaren bere bertsioa azaldu du. Baten batek, agian, Antxon ezertaz errugabetezko asmoa dudala pentsa dezake. Baina, nor naiz ni horretarako?

Ezagutzen zenuten elkar?

Ez.

Alde politikoari begira ondorioak atera daitezke dokumentaletik?

Baliteke. Agian, baten batek Pertur-
ren desagerpena zela kausa borroka
armatua errefusatu zuen, *Bereziak*

desagertzearen errudunak izan zirelakoan. Eta orain *Bereziak* edota *milien* jardueraz beste ikuspegi izan dezake orain? Edo alderantziz. Izan ere, Pertur-
ren kasua bi aldeek erabilia izan da, geroago Yoyes-en hilketa erabili zen bezala. Pertur kasua erreferente bat izan zen, baina geroko jarduera armatuek, nire iritziz, ez dute justifikatzen edo baldintzatzen Pertur-
ren desagertzea modu batera edo bestera izatea. Hau da, *Bereziak* izan ez arren, sektore bat Pertur-
ren desagertzearekin gustura eta harro geratu zen.


**Pertur-
ren desagerpe-
nak politikoki beste
zerbait galarazi al
zuen?**

Bai, eztabaida politikoa eragotzi zuen. Hau da, “gaiztoak eta onak” irudi bal-
darra eszenaratu zuen. Izan zitekeen eztabaida argigarria galdu zen, borroka armatuaren gaia erraizetik garatu zen. Ideologikoki, beharbada, norbaiti kez-
kak sorrarazi zizkion. Hau da, zer egin dugu? Ezker abertzalean *Pertur* ez da biktimen artean sartu, sektore zabal
batek kasua barneratu zuen, baita beste astakeria asko ere. Hala ere, zaila da emozionala eta ideologikoa bereiztea.

Dokumentala egin duzuen artean eragin al du ustearen aldaketak?

Ez. Niretzat eta nirekin aritu diren-
entzat ez du inolako garrantzirik *Bereziak* edo poliziak desagerrarazi izana. *Pertur* kasua modu batera edo bestera izan, *Bereziak* edota *miliek* harrezkero egin dutenak ez du euren basakeria garbitzen.

Dokumentalaren berri prentsan atera eta maniobrak aipatu dituzte batzuek, historiaren errebisioa egin nahi izatea.



“Dokumentalean agertu dudanez, ni neu pertzepzio joko perbertso baten biktima izan nintzen. Egoera horretan gauzak ez dira ‘diren bezala’, ‘ematen duten bezala’ baizik”.

Ez dakit zer maniobra motak ikusi dituzten... Pertur-
ren kasua argitu gabe dago eta inplikatuago gaude-
nok interes gehiago dugu berau argi-
tzeko. Norbaitek pentsatzen badu inor errugabete nahian aritu garela zeharo nahastuta dago. Ez nik edo beste inork ez dugu inoiz inor kon-
denatu gertatu zenaz. Baten batek dokumentala baliatu nahiko duela? Berdin zait. Dokumentalak ez du inoren irudia garbituko horregatik.

Pertur-
ren iazko omenaldian 500 *polimili* ohi bildu ginen. Jendearekin hitz egiteak motibatu ninduen poli-
tikoki eta profesionalki, nire lanbi-
dea da. Ni naiz 500en artean zinegi-
le bakarra. Hara azaldu ez banintz, “maniobra direlako horiek” ez ziren izango. Ez dago beste arrazoirik. Han egoteak eta zinegile izateak ekarri dute *El año de todos los demonios* dokumentala. ■